

9. KOSTUEN EGITURA

Gure negozioak sortzen dituen gastuak askotarikoak dira, eta batzuk besteak baino handiagoak. Gasturik handiena langileen soldata eta gizarte segurantzari dagokie, izan ere, lanaren oinarria dira eta haien lana ezinbestekoa da enpresaren funtzionamendurako, hauek kostu aldakorak dira.

Ondoren, ekoizpen-gastuak ditugu, hau da, gure produktuak edo zerbitzuak sortzeko beharrezkoak diren lehengaiak, tresnak eta materialak. Gastu hauek aldakorak izan daitezke ekoizpenaren kantitatearen arabera.

Hirugarrenik, lokalaren alokairua dago. Horrez gain, oinarritzko zerbitzuen gastu aldakorak ordaindu behar dira, hala nola: argindarra, ura, internet eta telefonoa, gure eguneroko jarduera aurrera eramateko ezinbestekoak direnak.

Azkenik, gasturik txikiena web orriari dagokio. Mantentze gastuak handiak ez diren arren, funtsezkoa da gure negozioaren irudia sendotzeko eta bezero berriak erakartzeko.

GERO EGONGO DIREN HASIERAKO KOSTUAK	
Merkataritza erregistroa	100€-200€
Notarioa	300€-500€
Patentea	875€
KOSTU FINKOAK	
Alokairua	600 € inguru
BEZ-a	%20
Maileguen itzulketa	Hasierakoa: 5.000€ Interes-tasa: bi urteetara % 6,5 2 urtearen amaieran: %1 Bueltatu beharrekoa: 5.378,25€
KOSTU ALDAKORRAK	
Garraioa	200€
Argia, ura eta gasa	300€
Soldatak	1.350€

Gizarte segurantz	soldataren %35,4a
-------------------	-------------------

Zurezko bizikleta ekologiko baten fabrikazioak hasierako inbertsio bat eskatzen du, produktuaren kalitatea eta merkatuan bideragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren material eta zerbitzu desberdinetan.

Bizikleta bat fabrikatzearen kostu totala 1.550 € ingurukoa dela kalkulatzen dugu. Jarraian zehazten dugu kostu horren nondik norakoa:

- Bizikletaren egiturarako erabiltzen den zura 70 € inguruko kostua.
- Zura lantzeko eta tratatzeko lana, gutxi gorabehera 50 €-ko kostua.
- Bizikleta, elektrikoa bihurtzeko motore sartzeko, 150 €-ko kostua.
- Bateriak 180 €-ko kostua.
- Pantaila eta aginteak ere gehitu behar zaizkie, 120 €-ko kostua.
- Segurtasun eta errendimendurako, frenoak gehitzen dira 100 €-ko kostua.
- Gurrpilak eta pneumatikoak 300 €-ko kostua.
- Suspentsio sistema 130 €-ko kostua.
- Iraunkortasuna bermatzeko, mantenimenduko lanek 50 €-ko kostua.
- Marketina, publizitatea, ziurtagiriak... produktua merkatuan aurkezteko 400 €-ko kostua.

BIZIKLETA FABRIKATZEAREN KOSTUA	
Zura eta bere eraldaketa	120 €
Motorea	150 €
Bateria	180 €
Pantaila eta mandoak	120 €
Frenoak	100 €
Gurrpilak eta pneumatikoak	300€
Suspensioa	130€
Mantenua	50 €
Ziurtagiriak, marketina...	400 €
Totala	1.550€

